

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO LEGEA BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUAREN GAINEKO TXOSTENA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumenari jarraiki eta Segurtasun sailak eskatua egin dugu txosten hau.

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko erabakiaz onartutako Jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea -genero eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak saihestu eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak-, eta bestetik, hobekuntzak proposatzea.

Aurreproiektu horren xedea da, inpakto txostenaren arabera, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko indarreko Legea partez aldatzea, batez ere Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko Estatuaren Lege Organikoan egindako aldaketen ondoriozko hobekuntza eta egokitzapenen arabera; eta bestetik, Konstituzio Epaitegiaren doktrinaren eta Hauteskunde Administrazioaren erabakien ondoriozko erreformak sartzea.

Proposatutako aldaketa batzuk funtsezkoak direnez, lehenengo jarraibidearen 2. atalean xedatutakoaren arabera, aurreproiektuari generoaren araberako eraginari buruzko ebaluazioa egin behar zaio, proposatutako aldaketak emakumeen eta gizonen arteko

desberdintasunak deuseztatzeko eta berdintasuna bultzatzeko mesedegarri edo kaltegarri diren aztertzeko.

Horri dagokionez, araua sustatzen duen organoak generoaren arabera Eraginaren Txostena egin du, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko otsailaren 13ko erabakiaz onartutako Jarraibideen lehenengo jarraibideko 4. eta 6. ataletan adierazitakoaren arabera. Aldiz, beharrezkoa zen Generoaren arabera Inpakto Txostena betetzea I Eranskinaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko erabakiaz onartutako Jarraibideen lehenengo jarraibideko 2 atalean ezarritakoaren arabera.

Generoaren arabera Eraginaren **txostenaren edukiari dagokionez**, adierazi nahi genuke interesgarria zatekeela hauteskunde-sisteman emakumeek eta gizonek duten egoera desberdina zehatzago aztertzea, sexuaren arabera bereizita emanez boto-eskubidea –nola aktiboa hala pasiboa- baliatzeari buruzko datuak, 2012. urteko azken autonomia-hauteskundeetakoak, behinik behin.

Adibidez, hautagai izan ziren emakumeen eta gizonen ehunekoak sartu eta azter zitezkeen, zerrenda-buru izan zirenean, Legebiltzarra osatu zutenena, Mahaia osatzen dutenena, eta hartu dituzten karguena, Bozeramaileen Batzordea osatzen dutenena, Batzordeetan buru eta partaide direnena, ze batzorde motetan parte hartu dute Izan ere, 4/2005 Legean eta 5/1990 Legean ordezkartzari buruz eskatzen diren manu orokorrak betetzeaz harago, oraindik ere desberdintasunak daude jardura eta eragin politikoari dagokionez; interesgarria litzateke horiek txostenean aipatzea.

Horren inguruan esan behar dugu, Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeak aurkeztutako datuen arabera, Hamargarren Legegintzaldiko Eusko Legebiltzarra 37 emakumek eta 38 gizonek osatzen dutela. Gainera, emakumeen presentzia Eusko Legebiltzarrean etengabe handituz joan da 2009ra arte, eta urte horretan murriztu egin zen. Alde horretatik, 2005. urtea oso garrantzitsua izan zen: lehenengoz, emakumezko

gehiagok jaso zuen legebiltzarkide-akta gizonaek baino. Gorakada hori lotuta dago, zalantzarik gabe, 2005eko martxoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartu izanarekin. Legea onartzearekin batera, VIII. Legegintzaldian emakumeen gehiengoa lortu zen: 38 emakume eta 37 gizon. Hurrengo legegintzaldian atzera egin zen: 43 gizon eta 32 emakume. Eta orainoan emakumeen portzentajea berriz igo da: %49,3 emakumeak eta % 50,7 gizonak.

Emakumeen eta gizonen presentziaren bilakaera Eusko Legebiltzarrean (1980-2012)										
Legealdia	I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII	IX	X
	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012
Emakumeak %	6,7	10,7	13,3	20	24	29,3	37,3	53,3	45,3	49,3
Gizonak %	93,3	89,3	86,7	80	76	70,7	62,7	46,7	54,7	50,7

Iturria: Zifrak 2012 txostena: Emakumeak eta gizonak Euskadin.

Gainera, lehendakarigai izan diren emakumeei dagokionez, 1980ko lehen hauteskundeetatik gaur egun arte, emakumeen presentzia anekdotikoa izan da:

Taula. Emakumezko lehendakarigaiak, Eusko Jaurlaritzan ordezkari izan duten alderdi politikoen arabera. 1980-2012

Deialdia	Emakumeren bat da alderdiburu?	Alderdi politikoa
1980	EZ	EZ
1984	EZ	EZ
1986	EZ	EZ
1990	EZ	EZ
1994	Enriqueta Benito	UA
1998	EZ	EZ
2001	EZ	EZ
2005	María San Gil	PP
	Nekane Erraskin	EHAK
	Aintzane Ezenarro	Aralar
2009	Aintzane Ezenarro	Aralar
2012	Laura Mintegi	EH Bildu
	Raquel Modular	Ezker Batua-Berdeak

Iturria: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Beste alde batetik, 1980az geroztik zerrendaburu izan diren emakume parlamentariei dagokienez, 1998tik 2005era, oso emakume gutxi izan ziren zerrendaburu: ordezkaritza izan zuten 15 zerrendaburuetatik (gutxi gorabehera) 1 edo 2 soilik ziren emakumeak. Datu horiek ere adierazten dute 2005eko hauteskundeetan 7 emakume soilik izan zirela ganberan ordezkaritza eskuratu zuten zerrendetako buru.

Zerrendaburu izan diren emakumezko legebiltzarkideak, lurralde historikoaren eta alderdi politikoaren arabera. 1984-2012.

Deialdia	Emakumezko zerrendaburuak	Alderdi politikoak
1984	Maria Dolores Arrieta (Gipuzkoa)	PCE-EPK
	Itziar Aizpurua (Gipuzkoa)	HB
1986	Maria Dolores Arrieta (Gipuzkoa)	PCE-EPK
1990	No hay	-
1994	Mati Iturralde (Araba)	HB
	Jasone Irraragorri (Bizkaia)	EA
1998	Jone Goirizelaia (Bizkaia)	EH
	Kontxi Bilbao (Araba)	IU/EB
2001	Jone Goirizelaia (Bizkaia)	EH
	María San Gil	PP
	Mari Carmen Nieves (Araba)	EHAK
2005	Enriqueta Benito (Araba)	UA
	Kontxi Bilbao (Araba)	IU/EB
	Maite Aranburu (Bizkaia)	EHAK
	María San Gil (Gipuzkoa)	PP
	M. Nekane Erraskin (Gipuzkoa)	EHAK
	Aintzane Ezenarro (Gipuzkoa)	Aralar
	Izaskun Bilbao (Bizkaia)	PNV
2009	Arantxa Quiroga (Gipuzkoa)	PP
	Aintzane Ezenarro (Gipuzkoa)	Aralar
	Isabel Salud (Araba)	Ezker Anitza
2012	Laura Mintegi (Bizkaia)	EH Bildu
	Belén Arrondo (Araba)	EH Bildu
	Raquel Modular (Bizkaia)	Ezker Batua
	Arantxa Quiroga (Gipuzkoa)	PP
	Alba Gutierrez (Gipuzkoa)	Ezker Batua

Iturria: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Halaber, bozketetako partaidetzari buruzko informazioa sar zitekeen; esate baterako, boto-emaleen erroldan dauden emakumeen eta gizonen ehunekoak eta horietatik zenbatek eman zuten botoa. Parte hartzeari buruz, sexuaren arabera alde esanguratsuak egon direla ikusiko balitz, interesgarria litzateke eremu honetan genero-eraginik ote

dagoen kualitatiboki aztertzea edo ikertzea. Sailean horrelako informaziorik ez balego, datu horiek lortzera bideratutako neurriak sartu behar lirateke.

Beste alde batetik, eta lege- aurreproiektuaren eduki eta aplikazioari dagokionez, hobekuntza hauek proposatzen ditugu, 2011ko maiatzaren 12an Emakundek txosten bidez proposatutakoari jarraiki:

- Aurreproiektuan beste aldakuntza bat sartzeko aukeratu baloratu behar da **hautaezintasun-kausa** izan dadin 5/1990 Legearen 4.6 artikuluan:

- Sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala ezarri izana, zehapena ezarritako aldi.
- Emakumeen aurkako indarkeriagatik delitua egiteagatik epaiz kondenatua izatea, nahiz eta epaia irmoa ez izan.

- Bederatzigarren atalean proposatzen den aldakuntzaren arabera, hauteskunde-mahaietan titular eta ordezkari izatea salbuesteko kausak hedatu egiten dira, hau da, bost hilabetetik gorako haurdunaldian dauden emakumeak eta bederatzi hilera arteko edoskitze naturalaren aldi daudenak salbuetsiko lirateke. Horri buruz, hausnarketa eta proposamen hauek egiten ditugu:

- Alde batetik, gure iritziz, haurdunaldian egoteak berak - haurdunaldia oso aurreratua egonagatik ere- ez du nahitaz eragozten lanbidean aritzea edo herritarren betebeharrak betetzea, kasu honetan bezala. Horregatik, haurdunaldiaren hila kontuan hartu gabe, laneko bajak edo, hala badagokio, medikuaren aginduak esango du kasu zehatz batean haurdun dagoen emakumea hauteskunde-mahaiko zereginak betetzeko moduan dagoen ala ez.

Bestalde, gure ustez, erditzearen ondorengo sei asteko atsedeen-aldia - amak nahitaez hartu beharrekoa- salbuespen izatea aztertu behar litzateke.

Bateragarritasuna ahalbidetzeko ere, aztertzea litzateke amatasun- eta aitatasun-baimena dutenak eta adingabeak edo mendekoak zaintzen daudenak salbuesteko aukera.

- Bestalde, bederatzi hilera arteko edoskitze naturalaren aldian dauden emakumeak salbuesten badira, ez dira berdin tratatzen edoskitze artifiziala ematen dauden emakumeak eta gizonak; beraz, salbuespena honela formulatu behar litzateke: “bederatzi hilera arteko umeen kargura dauden pertsonak”.

- Aurreproiektu honen hogeita laugarren artikuluan ezarritako **kanpaina-aurreko debekuei** dagokienez, proposatzen da 4/2005, legearen 26.2an ezarritakoari jarraiki, debeku bat ezartzea, pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izanteagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate edo propaganda oro egiteko, emateko edo erakusteko, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere.

- 4/2005 Legearen 3.1.c artikuluan eta -4/2005 Legearen 6. azken xedapenaren arabera- azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza-Dekretuaren 50.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, EAEko botere publikoek ezingo diete laguntzarik edo diru-laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala ezarri zaien pertsona fisiko edo juridikoei, zehapenean ezarritako aldi osoan (1/1997 Legegintza-Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzekoa). Beraz, horri buruzko

klausula bat sartu behar litzateke berrogeita hamabigarren artikuluan (hauteskundeetako diru-laguntzak).

Halaber, **4/2005 Legearen 2.3 artikuluan** esaten denaren arabera, botere publikoek emandako laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuei aplikatzekoak dira 3., 16., 18.4 eta 23. artikulua. Ondorioz, datuak sexuaren arabera bereizita eduki behar dituzte, hizkera ez-sexista erabili behar dute, zuzendaritza-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatu behar dute eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean 4/2005 Legearen 3. artikuluan ezartzen diren printzipio orokorrak bete behar dituzte; horrenbestez, berrogeita hamabigarren artikuluan horri buruzko atal bat sartzeko gomendatzen dugu.

- Aurreproiektua idazterakoan hizkera ez-sexista erabiltzeko egindako ahalegina balioesten dugu. Hala ere, 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan oinarrituta, aurreproiektuaren testuan soilik maskulinoz adierazitako termino batzuk berrikusi eta egoitu behar dira. Esate baterako: “los suplentes”, “el titular”, “candidato”, eta abar.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urtarrilaren 23an.